

HITZ BITAN

ZIKLO-KROSA

Datozen egunotan Belgikan eta Holandan jokatu diren lau probetan hartuko du parte David Secok

David Seco ziklo-kroslari busturiarrak Belgikan eta Holandan jokatu diren lau probetan hartuko du parte datozen egunotan. Gaur, Dottigniesen (Belgika) izango da; etzi, Vossemen (Belgika); azaroaren 1ean, Oudenaarden (Belgika); eta azaroaren 3an, Michielgestelen (Holanda) jokatu den Super Prestige proban.

NBA

Toronto Raptors taldeko Hakeem Olajuwon pibote nigeriarra heldu den azaroaren 9an erretiratuko da

Hakeem Olajuwon Toronto Raptors taldeko pibote nigeriarra heldu den azaroaren 9an emango du amaitutzat bere kirol ibilbidea, Dan Fegan bere ordezkariak atzo esan zuenez. Olajuwonek 18 urte egin ditu NBA, horietatik 17 urte Houston Rockets taldean, bi eratzun eskuratuta: 1994an eta 1995ean.



EL PAIS / AP

Herman Gaviria jokalaria kolonbiarra hil da, tximista batek jota

Herman Gaviria Kolonbiako Caliko Deportivo taldeko jokalaria hil zen atzo, bere taldearekin entrenatzen ari zela tximista batek jota. Gaviriaz gain, taldeko beste lau jokalaria zauritu egin ziren. Giovanni Hernandez, Carlos Alvarez eta Julian Espinosa ez daude oso larri. Giovanni Cordoba, aldiz, oso larri zauritua dago, eta bere bizi-

tza arriskuan dagoela esan zuten medikuek. Gaviria oso jokalaria ezaguna zen, Kolonbian bereziki. Caliko Deportivo taldean jokatu aurretik, Atletico Nacional, Deportes Tolima eta Atletico Bucaramanga taldeetan aritu zen. Halaber, 1994ko AEBetako Munduko Kopa jokatu zuen Kolonbiako selekzioarekin.

ESKIA. Eskiatzaile austriarra abenduan itzul daiteke, iazko abuztuan moto istripu larria izan ondoren

Erredakzioa | DONOSTIA

Eski Alpinoko Munduko Kopa hasiko da gaur, Austriako Soeldengo estazioan jokatu den emakumezkoen erraldoi batekin. *Zirku zuriaren* ikuskizuna gaur hasten den arren, begirada guztiak lehian oraindik egongo ez den eskiatzaile bati begira daude: Hermann Maier.

Eskiatzaile austriarra ez da oraindik osatu 2001eko abuztuaren 24an izandako moto istripu larriak eragindako lesioetatik. Mairrek bernezurra eta peronea hautsi zituen, eta hanka galtzeko arriskuan egon zen. Azkenean, halere, hanka salbatu zuen. Ezustekorik ezean, eskiatzaile austriarra datorren abenduan itzuliko da pistetara.

Stefan Eberharter herrikidea izango da Maierren aurkari zuzenena. *Herminator*—horrela deitzen diote Maierri—azkeneko urteetan eskian errege izan zena pistetatik kanpo dagoenez geroztik, bera da izar nagusia. Austriarrari 33 urterekin iritsi zaio loria ukitzeko txanda, eta Maier handiak utzitako hutsunea ederki asko baliatu du. Eberharterrek maila ikusgarria erakutsi zuen iaz, Munduko Kopa irabazita eta Salt Lake Cityko

Austriako Soelden estazioan hasiko da gaur Munduko Kopa, Maierren itzuleraren zain

ALESSANDRO TROVATI / AP

Hermann Maier eskiatzaile austriarra, duela bi urteko argazki batean.

Neguko Olinpiar Jokoetan hiru domina eskuratuta.

Goetschl, Dorfmeister, Nef eta Kostelic, emakumezkoetan

Emakumezkoen artean ere, hutsune nabaria izango da aurreneko probetan. Izan ere, Rena-

te Goetschl eskiatzaile austriarra ezin izango du abendua arte lehiatu, pasa den martxoan izandako eroriko larri bat izan ostean, min hartuta baitago.

Goetschl min hartuta, Michela Dorfmeister herrikidea—iazko Munduko Kopako

irabazlea—, Sonja Nef suitzarrak eta Janica Kostelic kroaziarra izango dira lehian. Kostelic eskiatzaile gaztea aipa daiteke horien guztien artean, kroaziarra Salt Lake Cityko erregina izan baitzen, hiru urre eta zilar bat eskuratuta.



MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 797 564

Km 00

FOCUS
.....14i - 3 atekoa

FOCUS
.....18 TDi - 3 atekoa

FOCUS
.....16-SW

MONDEO
.....TDi 115 - 4 atekoa(3)

MONDEO
.....TDCI 130 - SW

FIESTA
.....13i - 5 atekoa

FIESTA
.....TDCI - 5 atekoa(2)

DENAK 2002KOAK